

ETXEKO SUTONDOAREN AURREAN

Unai Otxotorena

Pasai San Pedro, 16 urte

Pago adaska. Txingarra. Hauspoa. Sulama.
Aizkoraren heriotzetik iluntasunera
eta iluntasunetik argira.
Bizitzarako zaindu behar dugun bidaia.
Kolpearen itoa, aizkora,
Zauriaren garraisia, txingarra.
Bizitzaren bulkada, hauspoa.
Kantuaren leherketa, sulama.
Gizon-emakume izateko,
bizitzaren hariko
funanbulista:

haripean leizearen iluna
buru gainean zeruaren urdina
eta beso irekien dantzan
magaleratu nahiko genukeen
espazioa.

Eta hirurak nahi ditut lotu,
minari traizio egin gabe
eta beltzez margotu gabe
pozaren kantua.
Onartuz zainetatik
zorionaren ur xirrinta adina
pasa dakidakeela
nahigabearen odola.

Bilkura-gela egin nahi nuke
bizitza,
konfidantzaz, anaitasunez
hitza emateko
ezintasunari gaztetasun-oldarrari
adina.

Itxaronez
mahats aleak estu elkartuta
dauden bezala, poliki poliki
lokarri sendoz lotzerik izango dudala
adaska
txingarra
hauspoa
sulama.

Eta huts egingo banu
berriro saiatzeko aukera nahi nuke,
sutondo itzalia tristea baita,
eta are tristeagoa
iluntasun itzaliari begira
dagokeen ni bezalako gazte
bizitzen hasi berria.